



KOLORE, KOLORE  
eta HONDAKINAK...  
**DENONTZAT,  
DENONTZAT  
BADIRA  
ONTZIAK...**



**ONTZIBOBO**





**HOBEKIAGO BEREIZI  
HONDAKINEN  
BALORIZATZEKO!**

 **Pays  
Basque  
euskal  
herria**

COMMUNAUTÉ  
D'AGGLOMÉRATION

HIRIGUNE  
ELKARGOA



  @communautePB  
communaute-paysbasque.fr

## 5 aTERABIDE HOBEGI BEREIZTEKO



### 1 **Bigarren bizi bat ukan dezaketen objektuak eman edo konpondu.**

Berriz erabilpenerako eta konponketarako eragileak badira eta haiek ezagutzeko, zoaz ondoko webgunera: **[biltagarbi.fr](http://biltagarbi.fr)** Berriz erabiltze edo « eman-hartu » guneak irekiak dira hondakindegri batzuetan.

### 2 **Biohondakinak konposta itzazu**

Zure bizilekuaren arabera (etxea baratze batekin, bizitegia baratze batekin, apartamendua gune berderik gabe), mota desberdineko konpostagailuak eskuragarri dira. Zure zikinontziaren pisua murrizten lagunduko zaitu, ongailu naturalak ekoiztuz.

### 3 **Berinazko estalkiak bereizi** (ontziak, botilak, flaskoak) hauei zuzenduriko edukiontzietan.

### 4 **Estalki guziak eta paperak elkarrekin bereizten ahalko dira 2023ko urtarrilaren 1etik goiti, salbu berina (honi zuzenduriko edukiontzian)**

### 5 **Ipar Euskal Herriko 25 hondakindegitarik batera joan zaitez**, hondakinak aitzinetik ongi bereiziz eta araberako tokian utziz: Obra-hondakinak, landare-hondakinak, kartoi ilunak, trabagarriak, altzariak, metala, zura, tresna elektrikoak eta elektronikoen hondakinak, olioak, ehuna, produktu arriskutsuak...